

VIII. Argazki zientifikoaren lehiaketa

2018ko edizioa



OINARRIAK

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Ikerkuntzarako Zerbitzu Orrokorrek (SGIker), **Argazki zientifikoaren VIII. lehiaketa** antolatzen dute. Lehiaketa honek hurrengo eremuetan garaturiko emaitzak zabaldu nahi ditu:

- Bizitzaren Zientzia arloa.
- Materialeen Teknologia eta Zientzia arloa.

1.- PARTE-HARTZEA

UPV/EHU-ko ekipamendua erabiltzailen duten ikertzaileek, lehiaketan parte hartu ahalko dute eta ez da izango beharrezkoa UPV/EHU berarekin loturarik izatea.

Ezin izango dute parte hartu lehiaketan SGIkerreko kideen familiarrak, ezta lehiaketaren antolakuntzarekin loturiko pertsonak ere.

2.- IRUDIEN AURKEZPENA

-Onarturiko argazki-teknikak

Besteak beste, **Mikroskopia optikoaren** bidez lorturiko irudiak aurkez daitezke (eremu argia, eremu iluna, faseen kontrastea, kontraste interferentzial diferentziala, fluoreszentzia, konfokal, mikroskopia estereoskopikoa, eta abar.), eta baita **mikroskopia elektronikoa eta nanomikroskopia**ren bidez (transmisioa, ekorketa, indar atomikoko, mikroskopia eta abar.) ateratakoak ere.

Era berean, **eredu estruktural, eskema edo diagrama irudiak** (sare konplexuak, eredu matematikoak, berreraikuntza eta 3D-tan errenderizatuak eta abar.), datu-lortzearen bidez egindakoak (proteomika, raman, infragorria, x-izpiak, espektroskopia eta abar.) eta zientzia-emaitza modu ikusgarri batean sustatzea helburu izan behar dute.

- Aurkezpen metodoa:

Parte-hartzaile bakoitzak bi irudi bidali ahalko ditu gehienez.

Irudiak hurrengo web helbideko formularioa betez bidaliko dira:

http://www.ehu.es/SGIker/argazki_lehiaketa

Irudi bakoitzak zehaztasun guztiak izango dituen azalpen laburra eta izenburua izango ditu (Lagin-mota, ekipamendua, erabilitako teknika eta abar). Era berean, lorturiko emaitzen azalpena erraztuko du.

Literatura-estilo didaktikoa aintzat hartuko da, eremu zientifikotik kanpoko pertsonari erakutsitako emaitza jakinarazi ahal izateko.

Irudiak, onarturiko formatu bakarrean aurkeztuko dira (JPG/JPEG irudi formatuan).

Irudi bakoitzak 6MB-ko gehienezko tamainua izango du.

3.- LANEN BALORAZIOA ETA EPAIMAHAIA

Irudiak baloratzeko, lehiaketaren arloko adituez osatutako epaimahaiak, hurrengo parametroak kontuan hartuko ditu:

- Inpaktu bisuala
- Zailtasun teknikoa
- Emaizta zientifikoa
- Textuaren estilo didaktikoa

4.- EPEA

Irudiak jasotzeko azken eguna **2018ko maiatzaren 18an** izango da.

Lehiaketa behin amaituta, irudiak jendaurrean erakutsiko dira SGikerren web orrian.

5.- SARIAK

Aurkezpenean dagoen kategoria bakoitzeko irabazle banari sari bakarra emango zaio, hau da:

- Bizitzaren Zientzia arloa.
- Materialen Teknologia eta Zientzia arloa.
- Irabazleak 10"ko tablet bat lortuko du.

6-SARITUEN KONPROMISOA

Lehiaketako sarituek hitzaldi labur bat egiteko konpromisoa hartzen dute epaimahiaren eta bertaraturiko jendearen aurrean. Hitzaldia 5 minutu ingurukoa izango da.

7.- EGILETASUNA ETA JABETZA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEAK

Parte hartzaileek aurkezturiko irudien jabetza intelektuaren egile eta jabe izan beharko dute eta hauek ezin izango dira beste lehiaketa batean sariturik egon aurretik. Era berean, ziurtatzen dute ez dituztela urratzen hirugarren pertsonen eskubideak.

Parte hartzaileek UPV/EHU-ri, izaera ez esklusiboan nazio eta nazioarteko mailan, libreki eta kontraprestazio ekonomikorik gabe, beharrezko eskubideak ematen dizkiote beraien irudiak erreproduzitzeko, banatzeko, publikoki komunikatzeko eta erabiltzeko edozein euskarritan, aktualitatean ezagunak edo ez, lehiaketarekin loturiko sustatzeko helburuekin eta unibertsitate-ekintzarekin lotutako beste ekintza batzuekin, betiere bere egiletasuna adieraziz eta kontraprestazio ekonomikorik jaso gabe.

Lehiaketa honetan parte-hartzeak, oinarri hauen onarpena eta epaimahaiaren eta antolaketaren erabakien adostasuna suposatzen ditu.